




Loturiko arriskuak	Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak
Pertsonak altueratik erortzea Laneko gorputz-jarrera jarraituak eta/edo behartuak	Eginen den atazarako beharrezkoak direnak Segurtasun-arnesa (3,5 metrotik gorako altueran lan eginen den guztietan)

PRAKTIKA SEGURUAK

SEGURTASUN NEURRI OROKORRAK


1. Esku-eskailerak altuerako languneetan erabili daitezke soilik justifikatuta badago laneko ekipamendu seguruagoak ez erabiltzea, arrisku maila baxuagatik eta lekuaren ezaugarriengatik. Guztiz debekatuta dago aukiak edo xede horretarako prestatuta ez dauden bestelako elementuak erabiltzea.
2. Eskailera mota aukeratu ezazu egin beharreko lanaren arabera, ondokoa kontuan hartuta:
 - Eskaileraren luzera: Esku-eskailerek gehienez 5 m-ko altuera gainditu dezakete, erdialdean errefortzua daramatenean izan ezik. *Debekatuta* dago 5 m-tik gorako altueretan erabiltzea. Eskaileraren goialdeak gutxienez *metro batean* edo lau eskailera-mailatan gaindituko du langunea (1. irudia).



- Eskailera mota edo materiala: zurezkoak edo sintetikoak (metalezko errefortzurik gabek) elektrizitate lanetarako, material herdoilezin edo sintetikoak lan hezeetarako.




- Euskarri motak: goian (posteetarako besarkagailuak, kakoak) eta behean (lurzoruaren araberako zapatak, puntak, iltzeak). Ikus 2., 3. eta 4. irudiak.



2. irudia




3. irudia



4. irudia

3. Edozein esku-eskailera erabili baino lehen egiaztatu egoera onean dagoela, ondoko elementuei begiratuta:

- Euskarri puntuek zapatak, gomazko takoak, burdinazko puntak edo ez irristatzeko bestelako elementuak izan behar dituzte oinetan eta euste kakoak goialdean (5. irudia).



5. irudia

- Maila askeak, gaizki lotuak, apurtuak edo pitzatuak, edota gaizki ordeztuak (barrak mailen tokian) edo alanbre eta sokekin lotuak.
- Zenbait eskailera mota luzatzeko behar diren elementu osagarrietan (poleak, sokak, etab.) akatsak.
- Guraize-eskailerek elementu bat izan behar dute (katea, zuntzezko tirantea, sokak, etab.) guztiz ez zabaltzeko (gehienez 30° zabaldu behar dira).
- Zurezko eskailerak ezin dira pintatuta egon. Estali daitezke, adibidez, landare-olio babesleekin edo berniz gardenekin.



➤ Eskailera metalikoak pintura antikorrosiboarekin estali behar dira, material herdoilezinezkoak direnean izan ezik. Zutoin, maila eta abarretan izan daitezkeen akatsak ez dira inoiz ez konponduko, ez soldatuko, ez zuzenduko.

4. Eskailera ez badago guztiz baldintza onetan edo erabilerarekin hondatu bada, ez ezazu erabili eta ohartarazi zure nagusia, guztiz baldintza onetan dagoen eskailera batekin ordeztu dezan (ikus 6. eta 7. irudiak).

5.



6. irudia




7. irudia

ERABILERA

1. Debekatuta dago 5 m-tik gorako altueretan erabiltzea. Langunea 3,5 metrotik gora dagoen guztietan puntu finko seguru batera lotutako segurtasun-arnesa erabili behar da. Altuera horietan edo handiagoan lan egin behar denean, beste baliabide lagungarri batzuk erabiliko dira lehentasunez (aldamioak edo plataforma jasogailuak). Kasu horietan, esku-eskailerak erabiltzea justifikatuta egonen da soilik lanak esporadikoak eta laburrak badira eta eskailerak egonkortasuna galtzeko arriskurik ez bada.

2. Esku-eskailerekin lan egitean, dauden babesak (barandak, hormak, leihoen karelak eta abar) gainditzen badira, norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira (erorikoen kontrako arnesa puntu seguruetara loturik, etab.) edo babes neurri alternatiboak hartuko dira (ikus 8. irudia).




8. irudia




Gaizki

Esku-eskailerak paratuko dira horizontalarekiko 75°-ko angeluarekin gutxi gorabehera, hau da, oinetik hormarako distantzia izanen da oinetik goiko euskarrira dagoen distantziaren laurdena (metro 1, 4 metroko). Eskailerak ez dira paratuko bota edo mugitu ditzaketen ateen edo elementu mugikorren irekiera gunean (ikus 9. irudia).




9. irudia

3. Eskailerak gainazal irmo baten gainean oinarritu behar dira eta kasuan kasuko lurzorurako aproposak diren zapatak izanen dituzte. Oinak erregulagarriak direnean bakarrik egin daiteke lan maldadun eremuetan. Guztiz debekatuta dago eskaileraren oinetan altxagarriak ipintzea (ikus 10. irudia).




10. irudia

4. Goiko aldean behar bezala finkatuko dira, ez daitezzen irristatu. Ezin bada, beste norbaitek eutsiko die (ikus 11. eta 12. irudiak).




11. irudia



12. irudia

5. Eskuak eta oinak jartzeko tokia izan behar da eskaileratik gora dauden laneko puntu guztietan eta, horregatik, oinen gainetik gutxienez lau maila utzi behar dira libre. Bi eskuak erabili beharreko lanak ez dira eskaileretan eginen.
6. Guraize-eslailerak osorik zabalduko dira, 30°-ko irekiera gainditu gabe (ikus 13. irudia). Debebatuta dago hankalatraba lan egitea, hau da, hanka bakoitza eskaileraren alde batean jarrita (ikus 14. irudia).



13. irudia

Eskailera egokia




14. irudia

Erabilera desegokia

7. Eskailerari begira igo eta jaitsi behar da, eta lanak ere eskailerari begira jarrita eginen dira. Eskailera batean zama bat eskuz eramanen da segurtasunez eustea galarazten ez duen eran. Debebatuta dago zamak garraiatu edo manipulatzeko esku-eskaileretatik edo esku-eskaileretan zehar, pisuagatik edo tamainagatik langilearen segurtasuna




arriskuan jartzen ahal badute (25 kg-tik gorako pisuak). Esku-eskailera bat ezin dute bi pertsonak edo gehiagok batera erabili (ikus 15. irudia).



ONGI

GAIZKI



15. irudia

8. Materialak edo tresnak igo edo jaitsi behar badituzu, erabili horretarako propio den baliabideren bat (gerriko erreminta-euskarria, motxilak, poltsak, etab.). Ikus 16. irudia.



16. irudia

Langileari emana

Izen-deiturak:

Sinadura:

Eguna: